



**DERioko UDALA**

**DERIO UDALERRIKO LOREZAINZAKO (SOROPILAK ETA BELARDIAK,  
PLANTAZIOAK, KANPOKO JARDINERAK ETA BARNEKO LANDAREAK) MANTENTZE-  
LANEN ZERBITZUA ETA BIDEETAN SASTRAKAK KENTZEKO ZERBITZUA  
BERRITZEKO, GARBITZEKO ETA HOBETZEKO LEHIAKETA BIDEZKO  
KONTRATAZIORAKO KLAUSULA ADMINISTRATIBOEN ETA EKONOMIKOEN PLEGUA**



**DERIOKO UDALA**

**EZAUGARRIEN TAULA**

**A. Kontratuaren xedea**

Lorategiak mantentzeko, berritzeko, garbitzeko eta hobetzeko lanei dagozkien zerbitzua eskaintzea (zerbitzu horrek barne hartzen ditu soropilak eta belardiak, plantazioak, kanpoko jardinerak eta barruko landareak, baita Derio udalerrian behar duten bideetan sastrakak kentzeko lanak ere).

**B. Prozedura eta izapidetzea**

Kontratazioa arautze harmonizatuaren menpe dago, prozedura irekiaren bidez.

**C. Sail arduraduna**

Udaleko Zerbitzu Teknikoa

**D. Preskripzio teknikoaren plegua**

Bai.

**E. Kontratuaren datu ekonomikoak:**

**Lizitazioaren aurrekontua:**

PREZIOA GUZTIRA: 1.300.288 euro, BEZa barne, kontratazioaren iraupen-aldiagatik, luzapenak barne.

Urterokoa: 325.072 euro, BEZa barne.

Kontratua (2 urte): 650.144 euro, BEZa barne.

Luzapenak (2 urte): 650.144 euro, BEZa barne.

**BEZa**

% 21 izango da (edo aplikatzeko unean dagokiona).

**F. Finantzaketa eta aurrekontu-partida**

Kontratazio honetatik eratorritako gastua udal-aurrekontuari dagozkion partiden kargura egingo da, edo hurrengo ekitaldietan zehaztuko direnen kargura. Kontratuaren ondoriozko betebeharrei erantzuteko kreditu egokia eta nahikoa izatearen menpe egongo da.

**G. Urte askorako gastua**

Ez.



## **DERIOKO UDALA**

### **H. Enpresa-sailkapena**

Taldea: O. Azpitaldea: 6. Kategoría: C

### **I. Behin-behineko bermea**

Ez da ezarri.

### **J. Behin betiko bermea**

Esleipenaren zenbatekoaren % 5 (BEZik gabe).

### **K. Kontratuaren iraupena**

2 urte.

### **L. Luzapenak**

2 urte, urtero luzatuak, aldeak ados jarrita eta elkarri hori adierazita.

### **M. Prezioa ordaintzea**

Hilero fakturak aurkeztuko dira aurreko hilabete naturalean emandako zerbitzuengatik, Udal Erregistroan, 30 eguneko epean, fakturan aipatzen den hilabetearen azken egunetik aurrera zenbatzen hasita. Aipatutako zerbitzua eman dela egiaztatu ondoren, ordainketa egingo da, Alkatetzak onartu ondoren, 30 eguneko epean, zerbitzua eman den datatik aurrera zenbatzen hasita.

Faktura F atalean azaltzen diren kontzeptuak eta zenbatekoak banakatuta aurkeztuko da.

### **N. Prezioak berrikustea**

Kontratuaren indarraldiaren lehen urtea igaro ondoren eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 90.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, eguneratu egingo da EAEko urteko azken KPIaren % 85aren arabera.

### **O. Bermealdia**

Bermea indarrean egongo da kontratua indarrean dagoen bitartean eta zerbitzuaren edo lanaren harrera edo adostasuna gertatzen den arte.



## DERIOKO UDALA

### P. Esleitzeko irizpideak

IRIZPIDEAK	PUNTUAZIOA	MODUA
<b>Eskaintako proiektu teknikoaren kalitatea</b>	<b>45 puntu</b>	Balio-judizioa
Langileak	10 puntu	
Makinak	5 puntu	
Egingo den azterketa	5 puntu	
Antolaketa orokorra	10 puntu	
Kontrol-sistemak	5 puntu	
Aurkeztutako azterketaren koherentzia	10 puntu	
<b>Beste hobekuntza batzuk</b>	<b>10 puntu</b>	Formula
Baldintza teknikoen pleguaren inguruan egindako hobekuntzak	5 puntu	
Ingurumen arloko hobekuntzak	5 puntu	
<b>Eskaintza ekonomikoa</b>	<b>45 puntu</b>	
Prezioa	35 puntu	
Prezio unitarioak	10 puntu	

### Q. Mahaiaren osaketa

Bai.

### R. Proposamenak aurkezteko modua

Aurrez aurre, posta ziurtatuz eta mezularitzez, Derioko Udaleko Erregistroan.



## Aurkibidea

I. XEDAPEN OROKORRAK	7
1. klausula.- Kontratuaren xedea.....	7
2. klausula.- Bete beharreko administrazio-beharrak.....	7
3. klausula.- Espedientearen izapidetzea eta esleipen-prozedura .....	7
4. klausula.- Kontratatzailearen profila .....	8
5. klausula.- Kontratuaren balio zenbatetsia.....	8
6. klausula.- Kontratuaren iraunaldia .....	9
7. klausula.- Kontratuaren araubide juridikoa .....	9
8. klausula.- Kontratatzeko ahalmena .....	10
9. klausula.- Kontratistaren sailkapena.....	13
II. KONTRATUAREN LIZITAZIOARI, ESLEIPENARI ETA FORMALIZAZIOARI BURUZKO XEDAPENAK	14
10. klausula.- Proposamenak eta administrazio-agiriak aurkeztea .....	14
11. klausula.- Kontratazio Mahaia .....	19
12. klausula.- Esleipen-irizpideak .....	20
13. klausula.- Proposamenak irekitzea.....	24
14. klausula.- Dokumentazioa eskatzea .....	24
15. klausula.- Behin betiko bermea .....	25
16. klausula.- Uko eta atzera egitea .....	26
17. klausula.- Ezohiko balioak edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzak (SPKLTBren 152. art.).....	26
18. klausula.- Kontratua esleitzea .....	27
19. klausula.- Kontratua formalizatzea eta hobetzea .....	27
20. klausula.- Dokumentazioa itzultzea .....	27
21. klausula.- Zerbitzuak gauzatzea eta gainbegiratzea .....	27
22. klausula.- Kontratua nola gauzatzen den kontrolatzea .....	28
23. klausula.- Lan-programa .....	28
24. klausula.- Kontratuaren arduraduna .....	28
25. klausula.- Gorabeherak ebaztea .....	28
IV. ALDERDIEN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI BURUZKO XEDAPENAK	29
26. klausula.- Enpresa kontratistari egin beharreko ordainketak.....	29



## **DERIOKO UDALA**

27. klausula.- Esleipendunaren eskubideak eta betebeharrak.....	30
28. klausula.- Konfidentziasuna .....	32
29. klausula.- Arau-hausteen tipifikazioa .....	32
30. klausula.- Ez betetzeagatiko zigorrak .....	35
31. klausula.- Aurretiko espedientea .....	35
32. klausula.- Administrazioaren eskumenak .....	36
<b>V. KONTRATUA LAGATZEARI, AZPIKONTRATATZEARI, SUBROGATZEARI ETA PREZIOAK BERRIKUSTEARI BURUZKO XEDAPENAK</b>	<b>36</b>
33. klausula.- Kontratua lagatzea .....	36
34. klausula.- Subrogatzea.....	36
35. klausula.- Langileak subrogatzea .....	36
36. klausula.- Prezioak berrikustea .....	37
<b>VI. KONTRATUA ALDATZEARI EDO ETETEARI BURUZKO XEDAPENAK</b>	<b>37</b>
37. klausula.- Kontratua aldatzea .....	37
38. klausula.- Kontratua etetea.....	38
<b>VII. KONTRATUA AMAITZEARI BURUZKO XEDAPENAK</b>	<b>38</b>
39. klausula.- Harrera eta likidazioa .....	38
40. klausula.- Bermealdia eta behin betiko bermea itzultzea edo baliogabetzea ....	39
41. klausula.- Kontratua ebaztea.....	39
<b>VIII. BALIABIDEAK, BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK ETA KONTRATUA BALIOGABETZEKO KASU BEREZIAK</b>	<b>39</b>
42. klausula.- Baliabideen erregimena .....	39
43. klausula.- Behin-behineko neurriak .....	40
44. klausula.- Baliogabetasun-erregimena .....	40
45. klausula.- Jurisdikzio eskuduna.....	40
I. eranskina.- Karatula-eredua	41
II. eranskina.- Erantzukizun-adierazpenaren eredua	43
III. eranskina.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko datuak indarrean daudela aitortzeko adierazpenaren eredua	45
IV. eranskina.- Konfidentziasun-adierazpenaren eredua	47
V. eranskina.- Proposamen ekonomikoaren eredua	48
VI. eranskina.- Behin betiko bermearen eredua	50



**DERIOKO UDALAK**

## **I. XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. klausula.- Kontratuaren xedea**

Baldintza teknikoen plegu honen xedea da lorategiak mantentzeko, berritzeko, garbitzeko eta hobetzeko lanei dagokien zerbitzua eskaintzea (zerbitzu horrek barne hartzen ditu soropilak eta belardiak, plantazioak, kanpoko jardinerak eta barruko landareak, baita Derio udalerrian behar duten bideetan sastrakak kentzeko lana ere; horiek baldintza teknikoen plegu honen 1. eranskinean agertzen dira).

CPV kodea:

77310000-6 Ereku berdeen mantentze-lanen eta plantazioen zerbitzuak

77311000-3 Lorezaintzako, artapeneko eta eremu berdeen eta udal-bideen ertzen eta parkeen mantentze-lanetako zerbitzuak.

77312000-0 Sastrakak kentzeko zerbitzuak

77314000-3 Lursailen mantentze-lanak egiteko zerbitzua

77314100-5: Zelaiak jartzeko zerbitzuak

77340000-5 Zuhaitzen eta zuhaixken inausketa

Aipatutako kontratua zerbitzuetako administrazio-kontratutzat jotzen da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 10. artikuluan xedatzen den bezalaxe.

### **2. klausula.- Bete beharreko administrazio-beharrak**

Erabilera publikoko espazio eta eremuetan dauden lorezaintzako elementuak artatzeko eta mantentzeko zerbitzuen kontratazioa lizitatzeko premia sortu da, eta zerbitzu hori eskaintzean kalitate eta aurrezte onena lortu nahi da.

Lizitazio hau espazio eta elementu horiei buruzko ikerketa oso batean oinarrituta dago; elementu horiek lizitazioa baimenduko dute kudeaketa eraginkorraren baldintzetan, parametro ekonomikoetan, zerbitzuetakoan, energia-aurrezpenekoan eta eraginkortasun-neurrien ezarpenean oinarrituta.

### **3. klausula.- Espedientearen izapidetzea eta esleipen-prozedura**

Arautze harmonizatuaren menpeko kontratu bat da; izan ere, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren II. eranskineko 1.-16. kategorien artean agertzen diren zerbitzuetako bat da, eta



## **DERIOKO UDALA**

650.144 euroko edo gehiagoko (BEZa barne) balioa duela kalkulatu da, kontuan hartuta izan ditzakeen luzapenak, arestian aipatutako Testu Bateginaren 16.1.b) artikulua ezartzen duenarekin eta bat datorren araudiarekin bat etorrira.

Lorategiak mantentzeko, berritzeko, garbitzeko eta hobetzeko lanei dagozkien zerbitzua eskaintzeko (zerbitzu horrek barne hartzen ditu soropilak eta belardiak, plantazioak, kanpoko jardinerak eta barruko landareak, baita Derio udalerrian behar duten bideetan sastrakak kentzeko lana ere) kontratua prozedura irekiaren bidez esleitu da. Interesa duen enpresari guztiek aurkeztu ahal izango dute proposamen bat, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 157. artikulua araberara.

Proposamenak negoziatzeko eta ekonomikoki eskaintza onuragarriena zehazteko, kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako zenbait alderdi hartuko dira kontuan, bat etorritik azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren (SPKLTB) 150.1 artikulua eta Plegu honetako 12. klausularekin.

Kontratazio-organoak ezin izango du lizitazio bat esleitu gabekotzat jo, pleguan adierazitako eskaintza edo proposamenen bat onargarria baldin bada.

### **4. klausula.- Kontratatzailearen profila**

Kontratuaren jarduerari buruzko informazioa gardena dela eta jendearen eskura jarri dela bermatze aldera, eta publizitateko bestelako baliabideak erabiltzean eragin gabe, udal honek Kontratatzailearen Profila izango du, eta sarbidea izango du honako webgune honetan arautzen diren zehaztapenen arabera: [www.deriokoudala.net](http://www.deriokoudala.net); informatzeko egingo da hori, eta ezarritako argitalpen guztiak Estatuko Plataforman egingo dira.

Lizitatuak zalantza izanez gero lizitazioaren inguruan, posta elektronikoz bidali beharko dute helbide honetara: [kontratazioa@deriokoudala.net](mailto:kontratazioa@deriokoudala.net). Gardentasun handiagoa izateko, galdera nahiz erantzuna Udalaren Kontratatzailearen Profilean argitaratuko dira, Udalaren webgunean ([www.deriokoudala.net](http://www.deriokoudala.net)) eta telefonoz.

### **5. klausula- Kontratuaren balio zenbatetsia**

Kontratuaren balio zenbatetsia 1.300.288 eurokoa da (BEZa barne), kontratazio-aldirako, luzapenak barne. Zenbateko hori honela xehatzen da:

Urterokoa: 325.072 euro, BEZa barne.

Kontratua (2 urte): 650.144 euro, BEZa barne.

Luzapenak (2 urte): 650.144 euro, BEZa barne.





## **DERIOKO UDALAK**

1. Kontratuari aplika dakioken BEZaren zerga-tasa % 21ekoa da, edo une bakoitzean ezartzen dena.

Nolanahi ere, BEZari dagokion zenbatekoa partida independente gisa esleituko da.

2. Lizitzaileek lanen, horniduren eta abarren prezio unitarioak aurkeztuko dituzte gutxienez, baldintza teknikoen pleguaren 3. eranskinean zerrendatutakoak, Udalak katalogo bat izan dezan, Udalbatzak beharrezkotzat jotzen duenean ezohiko zerbitzuak esleitzeko esleipendunak eskainitako prezioetan. Lizitzaileek zerbitzu, hornidura... gehiago ematen badituzte eta zerrenda horretan sartuta ez badaude, jarri egin beharko dituzte.

Katalogo horretan langileen orduko prezioa agertuko da, hainbat lanen arabera banatuta. Hartara, Udalbatzak, beharrezkotzat jotzen gero, kontratuan sartuta ez dauden lanen esleipena egin ahal izango du. Lan mota horiek ez dira ulertuko plegu honetako 36. klausulan aurreikusten diren aldaketen artekoak direla. Esleipendunak eskainitako orduko prezioari aplikatu beharko zaio pleguan aurreikusitako eguneratze-prozedura.

Lizitazio hau kontratua indarrean egongo den ekitaldiei dagokien aurrekontuen menpe egongo da, bai eta partidek kreditu egokia eta nahikoa izatearen menpe ere, kontratuaren ondoriozko gastuei aurre egiteko.

Lorategiak mantentzeko, berritzeko, garbitzeko eta hobetzeko zerbitzua (zerbitzu horrek barne hartzen ditu soropilak eta belardiak, plantazioak, kanpoko jardinerak eta barruko landareak, baita Derio udalerrian behar duten bideetan sastrakak kentzeko lana ere) Udaleko Zerbitzu Teknikoaren bidez kudeatuko da zuzenean, eta harekin egongo da harremanetan kontratuaren esleipenduna.

### **6. klausula.- Kontratuaren iraunaldia**

Kontratuaren iraunaldia 2 urtekoa da. Kontratua luzatu egin ahal izango da, bi aldeak ados jarrita eta berariaz adierazita, urtebeteko aldiez, eta gehienez ere 2 urtez.

### **7. klausula.- Kontratuaren araubide juridikoa**

Kontratua administratiokoa da, eta administrazio-klausulen plegu honek eta preskripzio teknikoen pleguak arautzen dute; klausulak kontratuaren zatitzat hartzen dira.

Halaber, aldeak honako araudi hauen menpe egongo dira:



## **DERIOKO UDALA**

- a) Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
- b) Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, 30/2007 Legea partzialki garatzen duena.
- c) Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena eta 817/2009 Legegintzako Errege Dekretua indarrean jarri ondoren indarrean dagoena.
- d) Ekainaren 22ko 11/2007 Legea, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa, eta hura garatzeko araudia.
- e) Horien osagarri, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horiek aplikatu ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Kontratuko klausulak, kontratua osatzen duten gainerako kontratu-dokumentuak eta hitzartutakoa gauzatzean aplikatu beharreko argibideak edo beste arau batzuk ez ezagutzeak edozein baldintzatan ez du salbuetsiko esleipenduna horiek betetzeko betebeharretik.

### **8. klausula.- Kontratatzeke ahalmena**

Kontratatzeke ahalmena izango dute pertsona fisikoek edo juridikoek, enpresek edo legez eraturako kooperatibek, betiere gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna badituzte, bat etorritz Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen testu bateginaren 54. eta 59. artikuluen artean zehaztutakoarekin, eta ez badaude aipatu legeak 60. artikuluan adierazitako egoeraren batean.

Ezingo dituzte langile gisa hartu Derioko Udalean jardunean daudenak.

Administrazioak xede horretarako aldi baterako enpresak edo enpresen elkarteak osatzen dituztenekin kontratuak egin ahal izango ditu (ez da beharrezkoa izango horiek eskritura publikoetan formalizatzea, harik eta esleipena egin arte). Horiek gizartearen aurrean solidarioki erantzungo dute eta ordezkari edo ahaldu bakarra izendatuko dute.

Enpresen helburua edo jardura zuzenean lotuta egongo da kontratuaren xedearekin, euren estatutuetan edo sorrerako araudian ezarrita dagoenaren arabera, eta behar bezala egiaztatzen badute. Halaber, enpresek antolaketa bat izango dute kontratua behar bezala gauzatzeko behar besteko elementu pertsonal eta materialekin.

Kontratu honen zehaztapen teknikoak edo kontratua prestatzeko dokumentuak egiten lagundu duten enpresek ezin izango dute lizitazio honetan parte hartu, betiere parte-hartze horrek lehiaketa askean parte hartzea eragotzi ahal badu edo gainerako enpresa lizitatuzaileekiko pribilegiozko tratua eragin ahal badu.



## **DERIOKO UDALA**

Plegu honetako hurrengo atalean zerrendatutako baldintzak akreditatzeko (lan egiteko gaitasunaren eta ordezkariaren dokumentu bidezko akreditazioa, erantzukizun-adierazpena eta kontratistaren sailkapena), honako hauek emandako ziurtagiriak aurkeztu ahal izango dira:

- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko letraduna, edo
- ✓ Estatuko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala, edo
- ✓ Sailkapenaren ziurtagiri komunitarioaren bidez.

Dagokion erregistroan aurkeztutako ziurtagirian jasota ez dauden egoerak direla eta, eskatutako egiaztagiria aurkeztuko da.

1. - Inskripzioaren adierazpena, laburpen-fitxarekin batera, eta enpresariaren legezko ordezkariaren erantzukizun-adierazpen batekin, erregistro horretan agertzen diren baldintzen arabera aldaketarik izan gabe eta eguneratuta (III. ERANSKINA).

Kasu honetan, lizitatzailleek ez dute aurkeztu beharko nortasun juridikoari, ordezkariari eta kaudimen teknikoari eta ekonomikoari buruzko ziurtagiria.

2. - Hala dagokionean, enpresek beraien enpresa-taldeari buruzko adierazpen bat aurkeztu behar dute, eta agiri horretan adieraziko dituzte taldea zein enpresak osatzen duten eta taldearen izena zein den. Horrela ikusiko da, hala badagokio, ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko baloreak jartzeagatik proposamenak bete daitezkeen.

3. - Ahalorde-askiespena jardunean den abokatu batek edo Korporazioko idazkariak formalizatu beharko du, horretarako ezarritako tasak ordaindu ostean.

4. - Enpresariaren nortasuna eta, hala badagokio, proposamena izenpetzen duenaren ordezkari egiaztatzen duten agiria edo agiriak:

4.1.- Lizitatzailleen NAN/IFZren fotokopia, behar bezala autentifikatuta.

4.2.- Sozietatearen, kooperatibaren eta abarren eraketa-eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta dagoena, baita hark izan ditzakeen aldaketak ere, jatorrizkoan eta notarioak autentifikatutako edo zuzenbidean beste modu batera onartutako kopia moduan.

4.3.- Beste pertsona bat ordezkatzeko den kasuetan, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako sozietatea ordezkatzeko duenaren ahalorde-eskritura; eskritura horrek jarduteko ahalmen nahikoa emango dio ordezkariari, eta Korporazioko idazkariak edo notario batek baimendu eta balioetsiko du (gutxienez 48 ordu lehenago aurkeztu beharko da Derioko udaletxeko idazkaritzan, prozedura honetan parte har dezakeela ziurtatu ahal izateko). Ahalorde-askiespenaren tasak oniritzia eman aurretik ordaindu behar dira (nahitaezkoa da oniritzia lortzea).

4.4.- Sozietatearen ordezkariaren NANaren fotokopia, behar bezala autentifikatua.



## **DERIOKO UDALA**

- 5.- Lizitzailearen erantzukizun-adierazpena. Adieraziko da ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina (SPKLTB) onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluan zerrendatutako kontratatze debekurik, plegu honetan agertzen den Udalbatzaren ereduaren arabera (II. ERANSKINA), bai eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ere.
6. - Enpresa-sailkapenaren ziurtagiria.
7. - Kontratua gauzatzeko giza eta material baliabide nahikoak jartzeko edo esleitzeko konpromisoa.
8. - Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuateginaren 4. xedapen gehigarrian aipatutako baldintzak betetzen dituela dioen ziurtagiria.
9. - Atzerriko enpresetarako:
  - a) Europako Komunitateko estatu kideetako espainiarrak ez diren enpresek, Europako Eremu Ekonomikoari buruzko akordioaren sinatzaileak diren enpresek edo atzerriko beste enpresa batzuek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatze, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 55. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.
  - b) Espainiako epaitegien eta auzitegien jurisdikziopean jartzeko adierazpena kontratutik zuzenean edo zeharka erator daitezkeen gertaera guztietarako; uko egingo diote, bidezkoa bada, lizitzaileari legokiokoen atzerriko foru jurisdikzionalari, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina (SPKLTB) onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 146.1.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
  - c) Enpresa-sailkapen komunitarioaren ziurtagiria, SPKLTBren 84. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- 10.- Aldi baterako enpresa-elkarteetarako:
  - Enpresa osatzen duen enpresari bakoitzak egiaztatu beharko du jarduteko gaitasuna eta kaudimena duela, aurreko atalekin bat etorrira.
  - Enpresari bakoitzak ordezkari edo ahaldun bakar baten izendapena egiaztatzen duen agiri bat aurkeztu behar du; pertsona horrek kontratuaren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak egiteko ahalmen balioetsiak izan behar ditu.
  - Eskumeneko zerga arloko administrazioak emandako behin-behineko IFZ jarri ahal izango da. Elkarteak, esleipena jaso ondoren, eskritura publikoan eratu izana egiaztatu eta behin betiko IFZ aurkeztu beharko du.
  - Kontratuaren esleipendunak badira, aldi baterako elkarte eratzeko konpromiso formala.



## **DERIOKO UDALA**

11. - Hala dagokionean, enpresek beraien enpresa-taldeari buruzko adierazpen bat aurkeztu behar dute, eta agiri horretan adieraziko dituzte taldea zein enpresak osatzen duten eta taldearen izena zein den. Horrela ikusiko da, hala badagokio, ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko baloreak jartzeagatik proposamenak bete daitezkeen.

12. - Konfidentzialtasun-aitorpena; bertan zehaztuko da, A gutun-azalean, nortasunari eta kaudimenari dagozkien ataletan hain zuzen, aurkeztutako zer dokumentu eta/edo datu diren konfidentzialak enpresa lizitatuzaileen ustez. Erabiltzaileen eskura dauden dokumentuak ezingo dira inola ere konfidentzialtzat jo.

13. - Enpresaren konpromiso formala, lorategiak mantentzeko, berritzeko, garbitzeko eta hobetzeko zerbitzuaren kontratuari atxikitako pertsonen lan-harremana subrogatzeko (enpresa-subrogazioa), bat etorritz baldintza administratiboan, ekonomikoan eta teknikoan pleguek ezartzen dutenarekin. Zerbitzu horrek barne hartzen ditu zelaiak eta belardiak, plantazioak, kanpoko jardinerak eta barruko landareak, baita Derio udalerrian behar duten bideetan sastrakak kentzeko lana eta landare-osasunerako tratamenduak ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratatuzaileen Erregistro Ofizialean izena eman duela egiaztatzen duen agiria aurkeztutakoan, lizitatuzaileak erantzukizun-aitorpena aurkeztu beharko du. Agiri horretan adieraziko da ziurtagirietan agertzen diren egoerak ez direla aldatu, SPKLren 146.3 artikuluan xedatutakoaren arabera eta atxikitako eredia erabiliz (III. ERANSKINA). Kasu horretan, 4.3 atalean adierazitako ahalmen-balioestea ere nahitaezkoa izango da.

### **9. klausula.- Kontratistaren sailkapena**

Kontratu honen zenbatekoa aintzat hartuz eta bat eginik Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen araudi orokorraren zenbait xedapen aldatzen dituen abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuaren 3. ataleko 11. artikuluekin, honako sailkapen honen bidez egiaztatu ahal izango da kontratatu ahal izateko kaudimena:

Taldea: O. Azpitaldea: 6. Kategoría: C.

Horrez gain, enpresariak kaudimena egiaztatu ahal izango du nola bere sailkapenaren bidez, hala xedapen hauetan eskaturiko kaudimen-baldintza espezifikoak betetzen dituela egiaztatuz.

**EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENA:** Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko irizpidea lizitatuzailearen edo izangaiaren urteko negozio-bolumena izango da; itxita azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko balioa halako bat eta erdi izan beharko du, baldin eta kontratuaren iraupena urtebetetik gorakoa bada. Merkataritza Erregistroan gordetako urteko kontu onetsien bitartez egiaztatuko da kaudimena, betiere enpresaria erregistro horretan izena emanda badago; bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordetako kontuen bitartez egiaztatuko da. Merkataritza Erregistroan izena emanda ez dauden banakako enpresariak,



## **DERIOKO UDALA**

urteko negozio-bolumena egiaztatzeko, inbentarioen liburuak eta Merkataritza Erregistroak legeztaturiko urteko kontuak aurkeztuko dituzte.

**KAUDIMEN TEKNIKOA:** Kaudimen teknika edo profesionala akreditatzeko, kontratuaren xede diren antzeko lanetan aurrez izandako esperientzia hartuko da kontuan. Hori egiaztatzeko, interesdunak azken bost urteetan egindako lanen zerrenda aurkeztu beharko du, lanak ondo gauzatu izanaren ziurtagiriekin batera, eta gutxieneko baldintza izango da lan gehien egin den urtean bildutako zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70 edo handiagoa izatea, edo batez besteko urtesariaren % 70 edo handiagoa, kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa bada.

Lan egiaztatuak eta kontratuaren xede diren lanak bat ote datozen erabakitzeko, kontratuari aplikatu dakioken sailkapena eskura izandakoan, lan mota bakoitzaren sailkapen-taldea eta -azpitaldea hartuko da kontuan, eta, gainerako kasuan, aintzat hartuko da dagozkien CPV kodeen lehen bi digituak bat datozen.

## **II. KONTRATUAREN LIZITAZIOARI, ESLEIPENARI ETA FORMALIZAZIOARI BURUZKO XEDAPENAK**

### **10. klausula.- Proposamenak eta administrazio-agiriak aurkeztea**

Eskaintzak Derioko udaletxean aurkeztuko dira (Herriko Plaza, 3), 09:00etatik 13:00etara bitartean, kontratuaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidali eta 40 eguneko epean. Pleguak eta agiri osagarriak bide elektronikotik eskuragai jartzen badira, eta iragarkiak bide elektronikotik, informatikotik edo telematikotik prestatu eta bidaltzen badira, kontratuaren iragarkia EBAOra bidali eta 40 egunekoa izango da epea.

Kontratuak nola Derioko udaletxean (Herriko Plaza 3, 48160 Derio), hala Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako lekuetako batean aurkeztu ahal izango dira (SPKLTBren 159. art.).

Eskaintzak postaz igortzen badira, enpresaburuak justifikatu egin beharko du Correos-eko bulegora igorri deneko ezarpen-data, eta kontratazio-organoari jakinaraziko dio egun berean eskaintza telefaxeaz, faxez edo telegramaz igorri dela. Espediente-zenbakia, kontratuaren xedearen izenburu osoa eta lizitatzaillearen izena adierazi beharko dira.

Telefaxes, faxak edo telegramak jaso izanaren egiaztagiria Udaleko idazkariak berak igorritako diligentzia bidez egingo da. Bi baldintza horiek bete ezean, eta kontratazio-organoak eskaintza lizitazio-iragarkian zehaztutako epea eta ordua amaitu ondoren jasoz gero, ez da eskaintza hori onartuko. Edonola ere, epe horren ondorengo bost egun igarota dokumentaziorik jaso ez bada, dokumentazio hori ez da onartuko.



## **DERIOKO UDALA**

Dokumentazioa udaletxean bertan aurkeztu ahalko da aurrez aurre, edo, bestela, posta arruntez bidali ahalko da, Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80. artikulua 4. atalean ezartzen dena betez.

Hautagai bakoitzak ezin izango du eskaintza bat baino gehiago aurkeztu (dena dela, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 145. eta 148. artikuluetan xedatutakoa beteko da). Era berean, ezingo du enpresen aldi baterako elkarten bidez eskaintzarik aurkeztu, bakarrik zein aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan parte hartu badu. Arau hauek hautsiz gero, berak izenpetutako eskaera guztiak baztertuko dira.

Eskaintza bat aurkezteak enpresaburuak Plegu honetako klausulak baldintzarik gabe onartzea dakar.

Proposamenak A, B eta C izeneko hiru gutun-azal itxik osatuko dituzte; horietako bakoitzean, enpresaren/erakundearen/pertsona fisikoaren izena jasoko da, eta halaber adieraziko dira proposamena sinatzen duen pertsonaren izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta jakinarazpenak igortzeko faxa, eranskin gisa atxikitako karatula-ereduari jarraikiz. Horrez gain, honako hau idatzi behar da:

“LORATEGIAK (SOROPILAK ETA BELARDIAK, PLANTAZIOAK, KANPOKO JARDINERAK ETA BARRUKO LANDAREAK BARNE) MANTENTZEKO, BERRITZEKO, GARBITZEKO ETA HOBETZEKO LANEN ETA DERIO UDALERRIAN BEHAR DUTEN BIDEETAN SASTRAKAK KENTZEKO LANEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROPOSAMENA”

Gutun-azal bakoitzean, aparteko orri batean, aurkezten diren agirien zerrenda zenbakitu bat sartuko da gainerako dokumentazioarekin batera. Dokumentazioak originala izan behar du, edo behar bezala egiaztatuta egon behar du, indarreko legeriari jarraikiz. Atzerriko enpresek dokumentazioa ofizialki itzulita aurkeztu behar dute, euskaraz eta/edo gaztelaniaz. Era berean, edukia jarraian zehaztuta dagoen moduan jaso beharko dute:

Lizitatuzaileek aurkezturiko dokumentazio guztia Derioko udaletxean entregatuko da, paper-formatuan eta formatu informatikoan (CDan edo Pen Drive-an), eta fitxategiak bateragarriak izango dira Udalak ezarritako programekin (Word, Excel, PDF...).

### **A) A gutun-azala:**

-Erantzukizun-adierazpena (plegu honen I. eranskinetako ereduaren arabera egindakoa). Horren bidez, lizitatuzaileak adierazten du, alde batetik, bete egiten dituela kontratatzeke eskatzen diren baldintzak eta plegu honetan zehaztutakoak, eta, bestetik, akreditatu duen dokumentazio guztia duela eta konpromisoa hartzen duela dokumentazio hori kontratazio-organoak eskatzen duen edozein unetan aurkezteko (nolanahi ere den, esleipen-proposamena bere aldekoa baldin bada, esleipena baino lehenago aurkeztu beharko du).



## **DERIOKO UDALAK**

Adierazpenaren edukiak bat etorri behar du emandako ereduarekin; hala, lizitazioetik baztertzeko arrazioa izan daiteke eredu horri jarraitzen ez dion adierazpena aurkeztea.

Ohartarazten da proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren erabakiko dela legez eta plegu honetan eskatutako baldintzak betetzen ote diren.

Horrez gain, helbide elektronikoko bat ere zehaztuko da, jakinarazpenak bidali ahal izateko.

- B) B **gutun-azala**, balioetsi beharreko dokumentazioa. Ondoren adierazitako dokumentuak sartuko dira bertan, eta ez dituzte 100 orrialde (50 orri alde bietatik) baino gehiago izango. Arial letra mota erabiliko da, 12 puntuko tamainakoa, tarte eta lerroarte bakunarekin. Horrez gain, orrialdeek ondo zenbatuta egon beharko dute, eta hurrengo paragrafoetan aipatutako atalak erabiliko dira dokumentuak sailkatzeko.

### **1. Proiektu teknikoa**

Lizitazzaileak proiektu tekniko bat aurkeztuko du, eta proiektu horretan honako alderdi hauek jasoko ditu, gutxienez:

1) **Langileak:**

- Enpresaren segurtasuna nahiz lan arloko osasuna bermatzeko neurriak betetzeko bermea, prestakuntza-plana, zerbitzuari atxikitako langileen goratzea eta birziklatzea, eta arriskuak prebenitzeko ziurtagiriak.

2) **Makinak**

- Makinen mantentze-lanei buruzko plana eta makinen azalpena.

3) **Egin beharreko azterketa:**

- Loreei, izurriteei, gaixotasunei eta abarri buruzko azterketak, eta, horrekin batera, zuhaitzietei, azalerei, inbentarioari eta abarri buruzko azterketak idazteko erabiliko diren baliabideak.

4) **Antolaketa orokorra:**

- Lorategiak mantentzeko, berritzeko, garbitzeko eta hobetzeko lanei dagozkien jarduteko programak (zerbitzu horrek barne hartzen ditu zelaiak eta belardiak, plantazioak, kanpoko jardinerak eta barruko landareak, baita Derio udalerrian behar duten bideetan sastrakak kentzea eta landare-osasunerako tratamenduak ematea ere), bat etorritik pleguaren eskakizunekin. Bertan zehaztuko dira egin beharreko lan guztiak, maiztasuna, etekinak, lanerako ekipoak (langileen, laguntzaile taldearen eta makinen arteko konbinazio egokia), kontrolatzeko erabilitako metodoak, ordutegiak, ebazteko epea, ibilbidea eta abar.





## **DERIOKO UDALA**

### 5) Kontrol-sistema

- Zerbitzua planifikatzeko eta horren jarraipena egiteko kontrol-sistemaren proposamena, baita zerbitzua kontrolatzeko eta bermatzeko proposatutako neurriak, zerbitzuaren kalitate-kontrolak eta horretarako erabiliko diren baliabideak ere.
- Zerbitzua emate eta antolatze aldera lizitatzailleek erabiliko dituzten baliabideak (programak, txostenak eta laneko parteak).
- Izurriteak kontrolatzeko plan integrala eta hondakinak kudeatzeko plana.

C) **C gutun-azala**, balorazio automatikoari dagokion dokumentazioa. Honako agiri hauek edukiko ditu:

### **1. Beste hobekuntza batzuk**

#### 1) Baldintza teknikoen pleguaren inguruan egindako hobekuntzak

- Pleguan eskatutako gutxieneko baldintzen inguruan egindako gailurik gabeko proposamenak, betiere kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta badaude. Hobetzeko proposamenak ekonomikoki balioetsi beharko dira, beheko taulari jarraikiz. Taula horretaz gain, proposatutako hobekuntza-jarduera guztiak azaltzen dituen memoria aurkeztuko da, eta, memoria horretan, jardueren irismena ulertzeko behar beste xehetasun emango dira: jarduerak gauzatzeko epe edo egutegi zehaztua eta horiek aintzat hartzeko nahiz aztertzeko behar diren bestelako xehetasunak.

<b>HOBKUNTZAREN DESKRIPZIOA</b>	<b>Unitateak</b>	<b>Zenbateko ekonomikoa</b>
1. hobekuntza:		
2. hobekuntza:		
3. hobekuntza:		
4. hobekuntza:		
...		
X. hobekuntza:		

#### 2) Ingurumen-arloko hobekuntzak

- Gailurik eragiten ez duten ingurumen arloko hobekuntzak, betiere pleguan eskatutako gutxieneko baldintzen inguruan egindako proposamenak badira eta



## **DEGIKO UDALA**

kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta badaude. Ingurumena hobetzeko proposamenek ekonomikoki balioetsita egon beharko dute, eta, horretarako, aurreko atalean adierazitako taula erabiliko da; hobekuntzaren deskribapena, unitateak eta zenbateko ekonomikoa jasoko dira. Halaber, proposatutako hobekuntza-jarduera guztiak azaltzen dituen memoria aurkeztuko da, eta, memoria horretan, jardueren irismena ulertzeko beste xehetasun emango dira: jarduerak gauzatzeko epea, plana edo egutegia, kalkulaturako aurrekontu xehakaturak, ahal bada, eta jarduera horiek aintzat hartzeko, aztertzeko nahiz balioesteko behar diren bestelako xehetasunak.

Eta, oro har, eskaintzak balioesterakoan erabiliko diren irizpide teknikoak aintzat hartuta, eskaintza objektiboki balioestea ahalbidetuko duen gutzia.

1. Eskaintza ekonomikoa. Lizitatuzaileek esleipenaren zenbatekoa esparru funtzionalaren arabera bereizten duen xehakapen bat erantsi beharko dute.
  - Aurrekontu osoa osatzen duten oinarritzko prezio guztiak eta prezio bereiziak zehaztu beharko dira, eta bereiz adieraziko da, halaber, bakoitzari dagokion eskaintza mota.
  - Zerbitzu bakoitzaren plantilla osatuko duten langile-kategoria bakoitzari dagokion soldata: oinarritzko soldata, antzinatasun-saria, aparteko ordainsariak eta onuren ordainsariak, gizarte-asegurua, familia-plusa, mutualitateak, istripuak, etab.
  - Askotariko materialen prezioen eta urteko gastuen zerrenda.
  - Jantzi eta aldagelen urteko gastuak.
  - Erabili nahi den material kontsumigarriaren urteko gastuak.
  - Enpresaren gastu orokorren justifikazioa.
  - Industria-onura.
  - Beste gastu batzuk.
  - Amortizazioa, hala badagokio.
  - Finantza-kostuak.
  - Zergak.

## **2) Prezio unitarioak**

- Baldintza teknikoen pleguaren 3. eranskinean atxikitako taulan agertzen diren lanen, horniduren eta abarren prezio unitarioak. Lizitatuzaileek jasota ez dauden beste zerbitzu edo hornidura batzuk aurkitzen badituzte, taulan gehitu beharko dituzte. Horrekin batera, zerbitzuaren lan gehigarri eta lagungarriei dagozkien prezioen katalogo bat ere jasoko dute, eta langileen orduko prezioa adieraziko dute bertan, dagozkien zereginen arabera banakatuta.



## **DERIOKO UDALA**

Dokumentazio hori beharrezkoa izango da kontraturako, eta, betetzen ez bada, dagokion zehapena ezarriko da.

Lizitatuak bakoitzak proposamen bakarra aurkeztuko du. Halaber, ezingo du enpresen aldi baterako elkarten bidez eskaintzarik aurkeztu, bakarrik zein aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan parte hartu badu.

### **11. klausula.- Kontratazio Mahaia**

Kontratazio Mahaiko burua korporazioko kide bat edo bertako funtzionario bat izango da, eta korporazioaren funtzionario batek jardungo du idazkari gisa, bat etorri maiztaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21.2 artikulua inguruan (horren bidez zati batean garatu zen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, hain zuzen ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuena) azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onesten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginak bigarren xedapen gehigarriaren 10. puntuan ezarritakoarekin. Gutxienez lau kide egongo dira; horietako bat idazkaria izango da edo, bestela, aholkulari juridikoaren egitekoak eman zaizkion titularra; beste kide bat idazkari-kontu hartzailea izango da; eta kontratazio-mahaiak beste kide batzuk izendatuko ditu Korporazioaren zerbitzura dauden karrerako funtzionarioen edo langile kontratadunen artean, edo korporazioko kide hautetsien artean.

Honako kide hauek osatuko dute Kontratazio Mahaia:

#### **Mahaiburua:**

Titularra: Esther Apraiz Fernández la Peña, Derioko Udaleko alkate-udalburua

Ordezkoa: Iker Iturrate Ibarra, Derioko Udaleko zinegotzia

#### **Mahaikideak:**

- 1.- Nekane Aiarza Zallo, Derioko Udaleko zinegotzia
- 2.- José Angel Aurrekoetxea Apeirribai, Derioko Udaleko zinegotzia
- 3.- Alpiniano Gonzalez Gomez, Derioko Udaleko zinegotzia
- 3.- Obra eta zerbitzuen arloko teknikari bat

Ordezkoa: obra eta zerbitzuen arloko teknikari bat

- 4.- Udaleko kontu-hartzailea

Ordezkoa: udal-langile bat



## **DERIOKO UDALA**

5.- Titularra: idazkaria

Ordezkoak: udal-funtzionario bat

### **Idazkaritza:**

Titularra: udal-funtzionario bat

Ordezkoak: udal-funtzionario bat

## **12. klausula.- Esleipen-irizpideak**

Proposamenak balioesteko eta eskaintzarik onuragarriena zein den erabakitzeko, esleitzeko hainbat irizpide hartuko dira kontuan. Lizitazio honen Ezaugarri Taula honetan daude jasota:

<b>IRIZPIDEAK</b>	<b>PUNTUAZIOA</b>	<b>MODUA</b>
<b>Eskaintako proiektu teknikoaren kalitatea</b>	<b>45 puntu</b>	<b>Balio-judizioa</b>
Langileak	10 puntu	Balio-judizioa
Makinak	5 puntu	Balio-judizioa
Egin beharreko azterketa	5 puntu	Balio-judizioa
Antolaketa orokorra	10 puntu	Balio-judizioa
Kontrol-sistemak	5 puntu	Balio-judizioa
Aurkeztutako azterketaren koherentzia	10 puntu	Balio-judizioa
<b>Hobekuntzak</b>	<b>10</b>	<b>Formula</b>
Baldintza teknikoen pleguaren inguruan egindako hobekuntzak	5 puntu	Formula
Ingurumen-arloko hobekuntzak	5 puntu	Formula
<b>Eskaintza ekonomikoa</b>	<b>45 puntu</b>	<b>Formula</b>
Prezioa	35 puntu	Formula
Prezio unitarioak	10 puntu	Formula

**BALIO-JUDIZIOEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: gehienez ere 45 puntu**



## **DERIOKO UDALAK**

### **1. Eskaintako proiektu teknikoaren kalitatea (B gutun-azala) gehienez ere 45 puntu**

1.a. Langileak ..... gehienez ere 10 puntu

Kontuan izango dira enpresaren segurtasuna nahiz lan arloko osasuna bermatzeko neurriak betetzeko bermea, prestakuntza-plana eta zerbitzuari atxikitako langileen goratzea eta birziklatzea.

1.b. Makinak ..... gehienez ere 5 puntu

Makinak mantentzeko plana eta horren deskribapena balioetsiko dira.

1.c. Egin behar den azterketa.....gehienez ere 5 puntu

Kontuan izango da, halaber, loreen, izurriteen, gaixotasunen eta abarren inguruan lizitatzailerak aurkeztutako azterketen kalitatea.

1.d. Antolaketa orokorra..... gehienez ere 10 puntu

Lorategiak mantentzeko, berritzeko, garbitzeko eta hobetzeko lanei dagozkien jarduteko programen balioespena (zerbitzu horrek barne hartzen ditu soropilak eta belardiak, plantazioak, kanpoko jardinerak eta barruko landareak, baita Derio udalerrian behar duten bideetan sastrakak kentzea ere). Kontuan izango da, pleguaren eskakizunekin bat etorriz, denboraldi bakoitzean egin beharreko lanen programa. Bertan zehaztuko dira egin beharreko lan guztiak, maiztasuna, etekinak, lanerako ekipoak (langileen, laguntzaile taldearen eta makinaren arteko konbinazio egokia), kontrolatzeko erabilitako metodoak, ordutegiak, ebazteko epea, ibilbidea eta abar.

1.e. Kontrol-sistemak .....gehienez ere 5 puntu

Kontuan izango dira zerbitzua planifikatzeko eta horren jarraipena egiteko kontrol-sistemaren proposamenak, baita zerbitzua kontrolatzeko eta bermatzeko proposatutako neurriak, zerbitzuaren kalitate-kontrolak eta horretarako erabiliko diren baliabideak ere. Halaber, aintzat hartuko dira zerbitzua emate eta antolatze aldera lizitatzailerak erabiliko dituzten baliabideak (programak, txostenak eta laneko parteak).

Horrez guztiaz gain, izurriteak kontrolatzeko plan integrala eta hondakinak kudeatzeko plana ere balioetsiko dira.

1.f. Aurkeztutako azterketaren koherentzia .....gehienez ere 10 puntu

Aurkeztutako azterketaren zehaztasuna, zuzentasuna eta edukia balioetsiko dira; batez ere, eskatutako edukiak ulertzeko, aztertze eta aurkitze erraztasuna.

## **AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK**

**1. Prezio unitarioak..... gehienez ere 10 puntu**



## **DERIOKO UDALA**

Lizitazzaileek preskripzio teknikoen pleguaren 3. eranskinean atxikitako taulan agertzen diren lanen, horniduren eta abarren prezio unitarioak eskaini beharko dituzte, gutxienez. Lizitazzaileek zerbitzu, hornidura... gehiago ematen badituzte eta sartuta ez badaude, taulan jarri beharko dituzte.

Prezio unitario horiek aparteko lanak edo lan osagarriak egiteko erabiliko dira, eta, horrez gain, eskainitako hobekuntzak balioesteko balioko dute (administrazioak ez du ezer ordaindu beharko).

Prezio unitarioen atalean deskribatutako item bakoitzari dagokion zati proportzionala emango zaio zuzenean.

Balioetsi beharreko itemaren prezio unitarioa: BIPU

Proposatutako guztizko prezioa (balioetsi beharreko eskaintzaren prezio unitario guztien batura): PGP

Item merkeenaren prezio unitarioa: IMPU

Guztizko prezio onuragarriena (prezio unitarioen batura): GPO

$$10 \times (\text{BIPU} / \text{PGP}) \times (\text{GPO} / \text{PGP})$$

## **2. Beste hobekuntza batzuk (B gutun-azala).....gehienez ere 10 puntu**

1. atalean deskribatutako prezio unitarioekin balioetsitako hobekuntzak.

2.a. Baldintza teknikoen pleguaren inguruan egindako hobekuntzakgehienez ere 5 puntu

Pleguan eskatutako gutxieneko baldintzen inguruan egindako gailkosturik gabeko proposamenak balioetsiko dira, betiere kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta badaude. Hobekuntzak balioesterakoan, proposatutako ekintzarekin aurreztuko litzatekeen zenbatekoa hartuko da kontuan.

Pleguan eskatutako kontzeptuen inguruko proposamenak ez dira balioetsiko, nahiz eta hobekuntza moduan aurkeztu.

Hobetzeko proposamenak ekonomikoki balioetsi beharko dira, beheko taulari jarraikiz. Taula horretaz gain, proposatutako hobekuntza-jarduera guztiak azaltzen dituen memoria aurkeztuko da, eta, memoria horretan, jardueren irismena ulertzeko behar beste xehetasun emango dira: jarduerak gauzatzeko epe edo egutegi zehaztua eta horiek aintzat hartzeko nahiz aztertzeko behar diren bestelako xehetasunak.

HOBEKUNTZAREN DESKRIPZIOA	Unitateak	Zenbateko
---------------------------	-----------	-----------



## DERIOKO UDALA

		ekonomikoa
1. hobekuntza:		
2. hobekuntza:		
3. hobekuntza:		
4. hobekuntza:		
...		
X. hobekuntza:		

Hobekuntza onuragarrienaren balioespena

5 x -----

Balioetsi behar den hobekuntzaren prezioa

2.b. Ingurumen arloko hobekuntzak .....gehienez ere 5 puntu

Gainkosturik eragiten ez duten ingurumen arloko hobekuntzak baino ez dira balioetsiko, betiere pleguan eskatutako gutxieneko baldintzen inguruan egindako proposamenak badira eta kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta badaude.

Ingurumena hobetzeko proposamenek ekonomikoki balioetsita egon beharko dute, eta, horretarako, aurreko atalean adierazitako taula erabiliko da; hobekuntzaren deskribapena, unitateak eta zenbateko ekonomikoa jasoko dira. Halaber, proposatutako hobekuntza-jarduera guztiak azaltzen dituen memoria aurkeztuko da, eta, memoria horretan, jardueren irismena ulertzeko beste xehetasun emango dira: jarduerak gauzatzeko epea, plana edo egutegia, kalkulaturako aurrekontu xehakaturak, ahal bada, eta jarduera horiek aintzat hartzeko, aztertzeko nahiz balioesteko behar diren bestelako xehetasunak.

Hobekuntza onuragarrienaren balioespena

5 x -----

Balioetsi behar den hobekuntzaren prezioa

3. Eskaintza ekonomikoa (C gutun-azala) .....gehienez ere 35 puntu

Eskaintza ekonomikoa balioesteko, honako formula hau erabiliko da:



**DEGIKO UDALA**

0,9 x Lizitazioaren prezioa

35 x -----

Balioetsi behar den eskaintza

### **13. klausula.- Proposamenak irekitzea**

Kontratazio Mahaiak, horretarako zehaztutako astegunean, ekitaldi pribatua egin eta A gutun-azalak irekiko ditu, bertan aurkeztutako administrazio-agiriak kalifikatu ahal izateko.

Beharrezkoa bada, Mahaiak gehienez ere hiru eguneko epea emango du, lizitatuzaileak aurkeztutako dokumentazioan atzeman diren eta konpon daitezkeen akatsak edo hutsegiteak zuzen ditzan.

B gutun-azalak ekitaldi publikoan irekiko dira, eta lizitatuzaileei telefono, fax edo posta elektronikoz emango zaie hitzordua gutun-azal horiek aztertzeko. Gutun-azal horietan daude, hain zuzen, balio-judizioen arabera hazta daitezkeen irizpideak.

Proposamenak irakurritakoan, Mahaiak egokitzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatuko ditu horiek balioesteko, plegu honetan ezarritako irizpideekin eta haztapenekin bat etorritik.

Kontratazio Mahaia berriz ere bilduko da, eta balio-judizioaren menpe dauden irizpideei esleitutako haztapenaren berri emango zaie. Jarraian, C gutun-azalak irekiko dira.

Balio-judizioaren menpe dauden haztapen irizpideen balioespena (B gutun-azalak) eta automatikoki hazta daitezkeen (C gutun-azalak) balioespena ikusita, Kontratazio Mahaiak proposatuko du kontratuaren esleipenduna.

### **14. klausula.- Dokumentazioa eskatzea**

Kontratazio-organoak eskaintza ekonomikorik onena egin duen lizitatuzaileari eskatuko dio, bost egun balioduneko epean, eskakizuna jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, honako ziurtagiri hauek aurkezteko:

#### **1. Ekonomia Jardueren gaineko Zergari dagokionez:**

Esleipendun gisa proposatutako enpresa EJZren subjektu pasiboa denean eta zerga hori ordaintzeko betebeharra duenean, indarrean dagoen ekitaldian zergan alta eman izanaren agiria aurkeztu beharko du, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, edo, bestela, zergaren azken ordainagiria. Agiri horrekin batera,





## **DERIOKO UDALA**

erantzukizun-aitorpena aurkeztuko da, zergaren matrikulan baja eman ez dela egiaztatzeko.

Proposatutako enpresa martxoaren 17ko 2/1992 Foru Dekretuak bere 5. artikulua 1. atalean ezartzen duen salbuespen-egoeraren batean badago (Dekretu horren bidez onetsi zen ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren testu bategina, Ekonomia Jardueren gaineko Zergari buruzkoa), legezko salbuespen-egoera zein den adierazten duen erantzukizun-aitorpena eta aitortenaren agiria aurkeztuko ditu zerga-betebeharren eroldan.

2. Gainontzeko zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagokienez:
  - a) Zergen Administrazioiko Estatuko Agentziak eta/edo Foru Ogasunak emandako aldeko ziurtagiria, adierazten duena enpresak zerga-betebeharrak egunean dituela eta Estatuarekin zergazko zorrik ez duela.
  - b) Gizarte Segurantzako Diruzaintzak emandako aldeko ziurtagiria, adierazten duena enpresak egunean dituela Gizarte Segurantzako betebeharrak.
  - c) Derioko Udalak ofizioz egiaztatuko du enpresak egunean dituela Udalarekiko zerga-betebeharrak.
3. Halaber, eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatuzaileak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:
  - Kontratua gauzatzeko hitzeman dituen baliabideak egiazki dituela egiaztatzen duten agiriak.
  - Behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duen agiria, 15. klausulan ezarritakoarekin bat etorritik.

Zehaztutako epean eskatzen diren agirien inguruko betekizuna behar bezala betetzen ez bada, ulertuko da enpresa lizitatuzaileak baztertu egin duela bere eskaintza. Kasu horretan, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera, hurrengo enpresa lizitatuzaileari eskatuko zaizkio agiri horiek. Halaber, dolu, erru edo zabarkeria kasuetan, hori gertatzen bada, ezingo du kontraturik egin.

### **15. klausula.- Behin betiko bermea**

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen lizitatuzaileak egiaztatu egin beharko du esleipenaren zenbatekoaren % 5eko bermea eratu duela, Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita.

Bermea honako modu hauetan era daiteke:



## **DERIOKO UDALA**

- a. Eskudirutan edo Zor Publikoko balioetan; kasuan-kasuan, legea garatzeko arauetan ezarritako baldintzei jarraituko zaie. Eskudirua eta balioak ibilgetzeko balioak Udal Diruzaintzan jarriko dira, Lege hau garatzen duten arauak ezartzen duten eran eta baldintzetan.
- b. Abal baten bidez; Espainian jarduteko baimena duen banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kreditu-establezimendu finantzario edota elkarrekiko berme-baltzuren batek eman dezake, Lege hau garatzen duten arauak ezartzen duten eran eta baldintzetan. Aurreko a) hizkian adierazitako establezimenduetan jarri beharko da.
- c. Kauzio-aseguru baten kontratuaren bidez; Lege hau garatzen duten arauak ezartzen duten eran eta baldintzetan egin behar da, eremu horretan jarduteko baimena duen erakunde aseguratzailer batekin. Aseguruaren ziurtagiria aurreko a) hizkian adierazitako establezimenduetan aurkeztu beharko da.

Abal eta aseguru-kontratu horiek askietsita egon beharko dute (Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onesten duen abenduaren 12ko 1098/2001 EDren 58. art.).

Ez da bermea itzuli edo ezeztatuko bermealdia amaitu eta kontratua behar bezala bete arte.

Berme horrek erantzun egingo die SPKLTBren 100. artikuluan jasotako kontzeptuei.

### **16. klausula.- Uko eta atzera egitea**

Kontratazio-organoak uko egin diezaioke esleitu aurretik kontratua egiteari, baldin eta behar bezala justifikatutako arrazoiak badaude eta aldez aurretik lizitatzailerrei horren berri ematen bazaie. Halaber, esleitu aurretik uko egiteko eskubidea izango du, kontratua prestatzeko edo esleitzeko prozedurako araudia bete ez bada eta arau-hauste hori konpondu ezin bada, bat etorritik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (SPKLTB) onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 155. artikuluan xedatutakoarekin.

### **17. klausula.- Ezohiko balioak edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzak (SPKLTBren 152. art.)**

Eskaintza ekonomikoak ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko baloreak dituela ulertuko da, baldin eta lizitatzailerak aurkeztutako oinarritzko aurrekontuak lizitazio-prezioarekiko % 15etik gorako jaitsiera badu, eskaintza ekonomikorako zehaztutako gehieneko puntuazioa balioetsiz, muga hori gorabehera.



## **DERIOKO UDALA**

### **18. klausula.- Kontratua esleitzea**

Kontratazio-organoak hogeitun lanegun izango ditu kontratua esleitzeko, eskatutako dokumentazioa jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Pleguan jasotako irizpideei jarraikiz eskaintza edo proposamenen bat onargarria bada, ezingo da lizitazioa hutsik geratu.

Esleipena arrazoitua izango da, eta, hautagai edo lizitatzailerik jakinarazten zaien une berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

### **19. klausula.- Kontratua formalizatzea eta hobetzea**

Kontratazio-organoak enpresa esleipendunari eskatuko dio kontratua formaliza dezala gehienez ere bost eguneko epean, eskakizuna jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, eta kontratazio arloko helegite berezia jartzeko 15 eguneko epea amaitutakoan.

Kontratugileak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikoan egitea, eta bere gain hartuko ditu dagozkion gastuak.

### **20. klausula.- Dokumentazioa itzultzea**

Kontratua formalizatu ondoren eta behin errekursoak aurkezteko epea igarota, horrelakorik aurkeztu ez bada, proposamenekin batera aurkeztutako agiriak enpresa lizitatzailerik esku geratuko dira.

Lizitatzailerik ez badituzte aipatu agiriak hartzen, suntsitu egingo dira, kontratua formalizatzen denetik urtebete igarotakoan, betiere kontratua tinkoa bada eta helegiterik ez badago edo, baldin badaude, behin betiko ebatzi badira.

## **III: KONTRATUA GAUZATZEARI BURUZKO XEDAPENAK**

### **21. klausula.- Zerbitzuak gauzatzea eta gainbegiratzea**

Kontratua baldintzen pleguan ezarritakoari jarraikiz gauzatuko da, eta bat etorriko da kontratua interpretatzeko kontratazio-organoak kontratugileari emango dizkion argibideekin.



## **DERIOKO UDALA**

### **22. klausula.- Kontratua nola gauzatzen den kontrolatzea**

Administrazioak ikuskatu, egiaztatu eta zaindu egingo du, kontratua behar bezala gauzatu dadin, eta kontratugileari jarraibideak emango dizkio, kontratua behar bezala betetze aldera.

### **23. klausula.- Lan-programa**

Kontratugileak lanerako benetako programa aurkeztu beharko du, eta bertan, data zehatzak jasoko ditu, lanak hasteko eta gauzatzeko datetatik hasita (B gutun-azalean, aldiz, lan-programa teorikoa aurkeztu behar zen). Hori guztia kontratazio-organoak onetsi beharko du.

### **24. klausula.- Kontratuaren arduraduna**

Derioko Udalak kontratuaren arduradun bat izenda dezake, eta pertsona horrek, oro har, kontratua nola gauzatzen den ikuskatzeaz gain, egiteko espezifiko batzuk ere izango ditu, hain zuzen ere, zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta emango zaizkion egitekoak. Horrela, kontratua gauzatzean sor daitezkeen gorabeheren ondoriozko karga administratibo eta teknikoak murriztuko da eta kontratuan parte hartzen duten eragileek koordinatuta dihardutela bermatuko da.

Egiteko horien artean dago kontratuaren urteko azken ebaluazio-txostenak ematea; txosten horietan jasoko dira kontratuaren gauzatzeari buruzko alderdiak eta, zehazki, diseinuaren egokitasunarekin, kontratuan aurreikusitako helburuekin eta lortutako azken emaitzekin lotutako alderdiak, baita arlo ekonomikoari, aurrekontuari eta arlo teknikoari dagozkien alderdiak ere.

Egiteko horiek zuzenean egin daitezke, edo kontratuaren exekuzioaren jarraipena behar bezala egiteko beharrezkoak diren lan teknikoak egingo dituen enpresa bat kontratatuta, pleguetan ezarritakoari jarraikiz.

### **25. klausula.- Gorabeherak ebaztea**

Kontratua gauzatzean administrazioaren eta kontratugilearen artean sor daitezkeen gorabeherak (hitzartutakoa berdin interpretatu ez delako edo kontratuaren baldintzak aldatu behar direlako) aurkaratzeko espedientearen bidez izapidetuko dira, eta agiri horretan jaso behar dira urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onesten duen Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen araudi orokorrak 97. artikuluan zehaztutako jarduketak.



## **DERIOKO UDALA**

Aurkaratzeko espedientea izapidetzeak ez du kontratua etenaraziko, betiere interes publikoko arrazoiek etetea justifikatzen ez badute edo gorabeheren izaerak etetea eskatzen ez badu.

### **IV. ALDERDIEN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI BURUZKO XEDAPENAK**

#### **26. klausula.- Enpresa kontratistari egin beharreko ordainketak**

Kontratugileari faktura aurkeztu ondoren ordainduko zaio (faktura indarrean dagoen araudiaren arabera egingo da), Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (SPKLTB) onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak bere 216. artikuluan ezartzen dituen epe eta baldintzetan.

Halaber, fakturazioa hilabete bakoitza amaitutakoan egingo da, fakturak egite aldera Udaleko zerbitzuek enpresa esleipendunari emandako jarraibideen arabera.

Fakturarekin batera, Gizarte Segurantzako Diruzaintzaren ziurtagiria aurkeztuko da, frogatzeko enpresak egunean dituela Gizarte Segurantzako kuotak, baita TC2 delako agiria ere, kotizazioaren eta zentroko langileen berri izateko.

Kalitate-maila betetzen ez denean, Udalak eskubidea du hileko fakturetatik dagokion zenbatekoa deskontatzeko (baldintza teknikoen pleguaren 5.7. artikulua). Edonola ere, kalitate-kontrolari dagokionez, preskripzio teknikoen pleguan ezarritako mekanismoak erabiliko dira, eta kontratua betetzen ez den kasuetarako plegu honetan jasotako zigorrak aplikatuko dira.

% 7a gainditzen duten aparteko zerbitzuak ez dira hor sartuko.

Ez dira aparteko zerbitzutzat hartuko ekitaldien, jaien eta ospakizunen urteko egutegian programatutako ekintzen ondorioz eman beharreko zerbitzuak.

Ekintzaileei laguntzeko neurriei, hazkundera suspertzeari eta enplegua sortzeari buruzko uztailaren 26ko 11/2013 Legearen hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriaren arabera, kontratugileak eman dituen zerbitzuei edo ondasunei dagokien faktura aurkeztu beharko du erregistroan, faktura hori izapidetzea dagokion administrazio-organo edo unitateari igorri ahal izateko.

Emandako zerbitzuei dagozkien fakturak Derioko udaletxeko erregistroan aurkeztuko dira (posta arruntez edo aurrez aurre). Faktura bakoitzean ondorengo datuak jaso behar dira, behar bezala identifikatuta:

- Izapidetzea dagokion organoa: Alkatetza, Derioko Udaleko Obrak, Hirigintza, Zerbitzuak eta Etxebizitza Sailaren bitartez.



## **DERIOKO UDALA**

- Kontabilitate publikoaren arloan eskumenak dituen administrazio-organoa: Kontu-hartzailletza.
- Kontratazio-organoa: Alkatetza.
- Faktura onesteko eskumenak dituen organoa: Alkatetza edo Tokiko Gobernu Batzordea, zenbatekoaren arabera.
- Hartzaillea: Derioko Udala, Herriko Plaza 3, 48160 Derio, Bizkaia.

### **27. klausula.- Etleipendunaren eskubideak eta betebeharrak**

Kontratua klausuletan eta pleguetan ezarritakoari jarraikiz gauzatuko da, eta bat etorriko da kontratua interpretatzeko kontratazio-organoak kontratugileari emango dizkion argibideekin.

Kontratugilea izango da garatuko dituen lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratua gauzatzean izandako hutsak, akatsak, metodo desegokiak zein amaiera okerrak direla-eta administrazioari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere.

Halaber, hauek ere kontratugilearen betebeharrak espezifikatu dira:

- Kontratugileak behar beste giza baliabide edo baliabide material erabili edo atxikiko ditu kontratua gauzatzeko (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 64.2 artikulua).
- Azpikontratazio kasuetan, kontratugileak bete egin behar ditu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 227. artikuluan aurreikusitako betekizunak.
- Kontratugilea behartuta dago lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden xedapenak betetzera.
- Kontratugileak, zerbitzuaren prestazioak gauzatzean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurriak aplikatu behar ditu.

Kontratugileak bermatu egingo du kontratua gauzatzeko erabilitako publizitateak, irudiek edo materialek ez dutela hizkuntza sexista erabiltzen, eta saihestu egingo dira emakumeak diskriminatzen dituzten irudiak edo estereotipo sexistak; berdintasun-balioak, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta rolen nahiz genero identitateen aniztasuna bultzatuko dira.

Kontratugileak printzipio eta betebeharrak jakin batzuk bete beharko ditu, hain zuzen ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarren otsailaren



## **DERIOKO UDALA**

18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezartzen dituztenak.

- Kontratua egiten duen enpresak euskara erabil dezake, kontratu honen xedea gauzatzeagatik administrazioarekin harremanetan dagoenean.

Lorategiak mantentzeko, berritzeko, garbitzeko eta hobetzeko zerbitzua (zerbitzu horrek barne hartzen ditu soropilak eta belardiak, plantazioak, kanpoko jardinerak eta barruko landareak, baita Derio udalerrian behar duten bideetan sastrakak kentzeko lanak ere) Udaleko Zerbitzu Teknikoaren bidez kudeatuko da, eta kontratuen esleipendunari dagokio honako hauek betetzea:

- Bere gain hartuko ditu zerbitzuak emateko erabili diren materialak mantentzeko eta konpontzeko gastuak.

- Horrez gain, erabilitako ibilgailuen eta makinaren erantzukizun zibileko aseguru-primak ordainduko ditu, eta polizaren eta ordainagiriaren kopia aurkeztu beharko ditu, 15 eguneko epean, kontratua formalizatzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Erantzukizun zibileko estaldura 2.000.000 eurokoa izango da, gutxienez.

- Erabiltzaileak izan daitezkeenei zerbitzua abiarazi dela jakinarazteak dakartzan gastuak, eta gerora egingo diren informazio-kanpainen gastuak.

- Kontratazioaren eta zerbitzua ematearen ondorioz edo deskribatutako zerbitzuekin lotuta dauden jardueren ondorioz ordaindu beharreko zergak edo gainordainak.

- Kontratuak iraun bitartean eskuratzen dituen datu pertsonalei dagokienez, kontratugileak Datu Pertsonalen gaineko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta berau garatzen duen araudiak agintzen duten guztia bete behar du.

- Beharrezkotzat jotzen baditu, Udalak une oro eskatu ahal dizkio enpresa esleipendunari emakidarekin lotutako agiriak, zerga, lan eta administrazio arloan enpresa guztiz legezkoa dela egiaztatzeari begira.

- Zerbitzuen enpresa esleipendunak bere gain hartuko du zerbitzuetan erabilitako langileek, ibilgailuek eta lan-tresnek eragindako istripuengatik kalte-galeren indemnitzazio zibil oro. Nolanahi ere, bermatu egingo da egileen edo arriskuak aseguratzen dituzten konpainien aurrean duen eskubidea.

- Enpresa esleipenduna izango da arduradun zibila eta administratiboa, bere langile eta enplegatuek egiten dituzten hutsegiteak direla eta. Zerbitzuak gaizki emateagatik, zabarkeriagatik edo bere erruz hirugarrenei eragindako kalteak (izan ondasunei, pertsoneri, instalazio partikularrei zein Udalari) ordaindu behar ditu. Halaber, kontratuari jarraikiz bestelako zehapenak ezarri ahal izango dira.



## **DERIOKO UDALA**

- Halabeharrezko kasuetan edo larrialdi publikoko egoeretan, normaltasunera itzultzeko langileak edo materiala beharrezkoak direnean, enpresa esleipendunak Udalak agindutakoa bete beharko du kontratatutako zerbitzuak emateko edo beste egiteko batzuk gauzatzeko, larrialdiak, halabeharrezko gertaerak edo zoritxar publikoak iraun bitartean.
- Enpresa esleipendunak saihestu egingo du ingurumen atmosferikoa, baliabide naturalak eta zerbitzuak gauzatzearagatik kaltetua izan daitekeen beste edozein ondasun kutsatzea. Kutsadura ekiditeko, zuzendaritzaren aginduak beteko dira.
- Zerbitzua txukun emateaz eta udal-ondarea zaintzeaz arduratzea. Horretarako, jarraibideak eman ahal izango ditu. Dena den, horrek ez du eraginik izango poliziak administrazioari emandako ahalmenetan.
- Esleipendunak ez du administrazioak emandako informazioa emango eta ez ditu administrazioak emandako azterlanak, agiriak eta datuak erabiliko edo zabalduko, plegu honetan aurreikusita ez dagoen erabilera baterako. Zehazki, ezingo dizkie agirien edo datuen kopiak hirugarrenei eman, Derioko Udalak idatziz baimena ematen ez badio.

Kontratu hau gauzatzean egindako azterlan eta bestelako agiriak Derioko Udalarenak izango dira; horrek erreproduzitzeko, argitaratzeko eta zabaltzeko eskubidea izango du (guztiz edo zati batean), eta esleipenduna eta lanen egileak ezingo dira horren aurka agertu.

Enpresa esleipendunak onartu egiten du eragiketa hauetan bildutako informazioa estatistika-sekretuaren menpe dagoela eta, ondorioz, onartu egingo ditu horrek tartean dauden langileentzako dakartzan betebeharrak ere.

### **28. klausula.- Konfidentzialtasuna**

Kontratu honetatik eratorritako prestazioak gauzatzean jaso edo eskuratu diren agiriak eta informazioa datu pertsonalen fitxategiaren arduraduna den eta kontratua egin duen administrazioaren esku daude eta konfidentzialak dira; beraz, ezingo dira komunikabideetan edo edozein motatako euskarritan erreproduzitu (ez osorik, ezta zati bat ere). Horrenbestez, ezingo dira informatikoki tratatu edo editatu, ezta hirugarrenei bidali ere, kontratuaren exekuzio-eremu zuzenetik kanpo. Kontratua amaitutakoan, datu horiek Udalari itzuliko zaizkio eta/edo suntsitu egingo dira.

### **29. klausula.- Arau-hausteen tipifikazioa**

Esleipendunak zerbitzuak ematean egin ditzakeen arau-haustea arin, larri eta oso larritzat kalifikatuko dira. Arau-hauste batzuk plegu honetan jasota daude eta, beste batzuk, berriz, beheko koadroan daude tipifikatuta eta zehaztuta:





## **DEGIKO UDALA**

### 1. Arau-hauste arinak:

- 1.1. Aurreikusitako zerbitzuetan aldaketak egitea.
- 1.2. Zerbitzuari kalte egin diezaiokeen jarduketa oro.
- 1.3. Kontratuan zehaztutako prestazioen zati bat ez gauzatzea, baldin eta ez bada arau-hauste larritzat jotzeko bezain larria.
- 1.4. Bestelako arau-hausteak, lan-arriskuak prebenitzeko araudiak eskatzen dituen betebeharrak formalekin edo agiriarekin zerikusia dutenak, baldin eta ez badaude larri edo oso larritzat tipifikatuta.
- 1.5. Baldintza teknikoaren pleguko 5.7 artikuluan zehaztatutako edozein huts, baldin eta arau-hauste arintzat tipifikatuta badago.

### 2. Arau-hauste larriak:

- 2.1. Justifikatu gabe eta alde aurretik jakinarazi gabe zerbitzu bat aldatzea.
- 2.2. Esleipendunak eskaini ez duen ekipo bat erabiltzea.
- 2.3. Zerbitzuen xehetasunak aldatzearen inguruan Udalak emandako ebazpenak edo erabakiak ez betetzea, betiere esleipendunari gasturik eragiten ez dioten kasuetan.
- 2.4. Zerbitzuak ematean behin eta berriro atzeratzea (Udalak hiru ohartarazpen baino gehiago egiten baditu).
- 2.5. Hiru arau-hauste arin egitea.
- 2.6. Zerbitzuen prestazioaren hasiera egun bat baino gehiago atzeratzea, betiere ez badago atzerapen hori eragin duen ezinbesteko arrazoirik.
- 2.7. Administrazioaren errekerimenduei kasurik ez egitea edo horiek ez betetzea.
- 2.8. Kontratugilearen eskaintzan aurreikusi ez diren lan-sistemak edo langileak erabiltzea.
- 2.9. Plegu honetan eta kontratua gauzatzeko bestelako xedapenetan ezarritako eskakizun formalek ez betetzea.
- 2.10. Prestazioen berri emateari dagokionez, Udalaren aginduak ez betetzea.
- 2.11. Lan-arriskuak prebenitzeko araudi orokorrean jasotako betebeharrak ez betetzea, baldin eta arau-hauste hori ez bada oso larritzat jotzeko bezain larria.



## **DERIOKO UDALA**

- 2.12. Baldintza teknikoen pleguko 5.7 artikuluan zerrendatutako edozein huts, baldin eta arau-hauste larritzat tipifikatuta badago.
  - 2.13. Arau-hauste arinak behin eta berriro egitea.
3. Arau-hauste oso larriak:
- 3.1. Zerbitzuen prestazioaren hasiera egun bi baino gehiago atzeratzea, betiere ez badago atzerapen hori eragin duen ezinbesteko arrazoirik.
  - 3.2. Zerbitzua emateari dagokionez Udalak idatziz emandako aginduak behin eta berriro ez betetzea. Behin eta berriro ez betetzeak hiru agindu edo gehiago ez betetzea esan nahi du.
  - 3.3. Zerbitzuei atxikitako langileek ez betetzea lan-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta laneko segurtasun eta higiene arlokoak.
  - 3.4. Zerbitzuak gelditzea edo etetea.
  - 3.5. Aseguru-polizarik ez edukitzea edo estaldura nahikoa ez izatea, zerbitzuen emakida arautzen duen baldintzen pleguan aipatutako arriskuei eta esleipendunaren erantzukizunei aurre egiteko.
  - 3.6. Hiru arau-hauste larri egitea.
  - 3.7. Egiaztatutako atzerapen sistematikoak zerbitzuak ematean (Udalak idatziz sei ohartarazpen edo gehiago igortzen baditu).
  - 3.8. Zerbitzuak emateko moduan iruzur egitea.
  - 3.9. Zerbitzuak ematen hasteko epea ez betetzea.
  - 3.10. Kontratuan zehaztutako prestazioen zati bat ez gauzatzea, baldin eta horrek kalte oso larriak eragiten baditu.
  - 3.11. Kontratugileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratu honen xede diren prestazioak guztiz gelditzea.
  - 3.12. Administrazioaren errekerimenduei kasurik ez egitea edo horiek ez betetzea, baldin eta horrek kontratuaren exekuzioan kalte oso larriak eragiten baditu.
  - 3.13. Pleguetan nahiz kontratugilearen eskaintzetan aurreikusi ez diren lan-sistemak edo langileak erabiltzea, baldin eta horrek kontratuaren exekuzioan kalte oso larriak eragiten baditu.
  - 3.14. Kontratugileak kobratze-agirian prestazioak faltsutzea.
  - 3.15. Zerbitzuaren erabiltzaileei ahoz nahiz ekintzen bidez begirunea galtzea.



## **DERIOKO UDALA**

- 3.16. Azpikontratatzearekin lotutako preskripzioak modu oso larrian ez betetzea, hala badagokio.
- 3.17. Baldintza teknikoen pleguko 5.7 artikuluan zerrendatutako edozein huts, baldin eta arau-hauste oso larritzat tipifikatuta badago.
- 3.18. Arau-hauste larriak behin eta berriro egitea.

### **30. klausula.- Ez betetzeagatiko zigorrak**

Arauk bete ez arren kontratuak indarrean jarraitzen badu, kalte-galeren ordaina alde batera utzita, Derioko Udalak zehapen hauek jarri ahalko ditu, kaltearen larritasuna, arriskua eta zenbat aldiz egin den kontuan hartuta:

- Huts oso larriak: gehienez ere esleipenaren zenbatekoaren % 10, hala badagokio.
- Arau-hauste larriak: gehienez ere esleipenaren zenbatekoaren % 5.
- Arau-hauste arinak: gehienez ere esleipenaren zenbatekoaren % 3.

Zigorrak kontratazio-organoak erabakiko ditu, kontratuaren arduradunak proposatuta, halakorik izendatu bada. Zigorren zenbatekoak kendu egingo zaizkie kontratugileari ordaindu beharreko kopuruei, ordainketa oso edo zati gisa. Bestela, hala badagokio eta bermea eratu bada, bermeari kenduko zaio, aipatu fakturei kendu ezin bazaie.

### **31. klausula.- Aurretiko espedientea**

Arau-hausteengatiko zehapenak jarri aurretik espedientea izapidetuko da; espediente hori Udaleko zerbitzuek proposatuta sartuko da eta zerbitzuaren zinegotzi eskuordetuak egingo du, bere kabuz edo erabiltzaileek jarritako salaketen ondorioz. Espedientearen bitartez, esleipendunari entzunaldia emango zaio, gertakariak justifikatzeko beharrezko informazioa eman eta frogak egingo dira eta Prozedura Administratiboaren araudiak eta aplika daitezkeen gainerako xedapenek ezartzen dituzten berme juridiko eta administratiboak aztertuko dira.

Zehapena jarritakoan, esleipendunak zenbatekoa ordaintzen ez badu, Udalak hilero egingo duen edozein ordainketatik kendu ahal izango du.

Zehapenak kontratua deuseztatu behar dela badio, kontratuaren fidantza galdu egingo da eta esleipendunak ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izango.



## **DEGIKO UDALA**

### **32. klausula.- Administrazioaren eskumenak**

Kontratazio-organoak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 210. artikulua zehazten duenarekin bat etorriz, honako eskumen hauek izango ditu:

- a) Kontratua interpretatzea.
- b) Kontratua betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzea.
- c) Kontratua aldatzea, interes publikoak hala eskatzen badu.
- d) Kontratua deuseztatzeko erabakia hartzea, eta kontratuaren ondorioak zehaztea.

Edonola ere, kontratatari entzuteko aukera emango zaio. Horretarako, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 211. artikuluan aurreikusitako izapideei helduko zaie.

## **V. KONTRATUA LAGATZEARI, AZPIKONTRATATZEARI, SUBROGATZEARI ETA PREZIOAK BERRIKUSTEARI BURUZKO XEDAPENAK**

### **33. klausula.- Kontratua lagatzea**

Enpresa kontratugileak hirugarren bati laga ahalko dizkio kontratu honen eskubide eta betebeharrak, betiere lagatzailearen ezaugarri tekniko edo pertsonalak ez badira erabakigarriak izan kontratua esleitzeko, eta administrazioak baimena ematen badu. Halaber, bete egin beharko dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 226. artikulua jasotzen dituen baldintzak.

### **34. klausula.- Subrogatzea**

Kontratugileak ezin du hirugarrenekin hitzartu kontratu honen zerbitzu-emakida partziala edo osoa.

### **35. klausula.- Langileak subrogatzea**

Zerbitzuen esleipendunak zerbitzuari atxikitako langileekin subrogatuko du indarrean dauden lan-kontratuen enpresa-titulartasuna, eta halaxe jasoko da aurreko



## **DERIOKO UDALA**

kontratugilearen langileak izenpetutako kontratuan (baldintza teknikoaren pleguaren 2, eranskinean dago zerrendatuta).

Subrogatu beharreko langile nahikorik egon ezean, enpresa esleipendunak bere betebeharrak eta plegu honetan zehaztutako beharrianak asebetetzeko beharrezko lan-karga kontratatu, berrantolatu eta birbanatuko du, zerbitzu egokia emate aldera. Langile denak enpresa esleipendunaren menpe egongo dira bakarrik. Beraz, jabe gisa dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu enpresa horrek, eta lan arloko nahiz Gizarte Segurantzako betebeharrak guztiak bete beharko ditu bere kargura dituen langileekin. Zerbait handitu edo aldatu aurretik, kontratazio berria formalizatzeko beharra, baldintzak eta abar agirien bidez justifikatu beharko dira. Halaber, Administrazioaren ordezkariak oniritzia eman beharko dio eta kontratazio organoak onetsi beharko du.

Kontratuaren xede diren lanak egitean langileek istripuren bat izan badute edo edozein motatako kalteak izan badituzte, enpresa esleipendunak indarrean dauden araudietan xedatutakoa bete beharko du, eta bere erantzukizunpean egingo du.

### **36. klausula.- Prezioak berrikustea**

Kontratuaren indarraldiaren lehenengo urtean (kontratu-agiria sinatzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita), ez dira prezioak berrikusiko; hortaz, epe horretan, esleipendunak bere eskaintza ekonomikoan proposatutakoa jasoko du.

Kontratuaren indarraldiko lehenengo urtea igaro ostean, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 90.3 artikuluekin bat etorriz, KPIren aldaketaren arabera eguneratuko da, eta ezingo da % 85a gainditu. Aldaketa hori indarrean egongo da kontratua sinatu eta hurrengo hamabi hilabeteetan.

Prezioak berrikusteko eskaera aurkezten duenean, KPIren aldaketak direla-eta INEK emandako ziurtagiria eman beharko du esleipendunak, zerbitzu bakoitzari dagokionez.

Dagozkion txostenak egindakoan, Kontratazio organoak eskaera aztertuko du.

## **VI. KONTRATUA ALDATZEARI EDO ETETEARI BURUZKO XEDAPENAK**

### **37. klausula.- Kontratuaren aldatzea**

Kontratuaren esleitu ondoren, Udalak aldaketak egin ahal izango ditu berau osatzen duten elementuetan. Aldaketa horiek nahitaez bete beharreko legezko araudi bateko partidenak izango dira.



## **DEGIKO UDALA**

Kontratua gauzatzean kontratatutako zerbitzuen prestazioa aldatu beharko balitz, bajengatik, dagokion akordioa egingo du kontratazio-organoak, eta orduen poltsa bat sortuko da. Horiek beste zerbitzu batzuk egiteko baliatuko dira, baldin eta Udalak onartzen baditu, edo kaltetutako azaleraren proportzionala den deskontu ekonomikoa egingo da.

Kontratuaren aldaketa azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako araudiaren arabera egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (SPKLTB) onartzen duena (105.-108., 219. eta 220. artikulua), edo berau ordezkatzeko duen araudiaren arabera.

### **38. klausula.- Kontratua etetea**

Administrazioak kontratua bertan behera uztea adosten badu, dagokion bertan behera uzteko akta egin beharko da, SPKLTBren 220.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Bertan behera uzteko akta, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Nagusiaren (APKLAN) 103. artikulua arabera, kontratazio-organo baten ordezkariak eta kontratistak sinatu beharko dute, eta bi egun balioduneko gehieneko epea ezarriko da, bertan behera uztea adosten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Administrazioak eragindako kalte-galerak eman beharko dizkio kontratugileari.

## **VII. KONTRATUA AMAITZEARI BURUZKO XEDAPENAK**

### **39. klausula.- Harrera eta likidazioa**

Kontratuaren harrera eta likidazioa SPKLTBren 222. eta 307. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik egingo dira.

Administrazioak erabakiko du kontratugileak emandako prestazioak bat datozen kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioekin, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak emateko eta atzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko du, horiek jasotzen dituenean.

Kontratugileari egotz dakizkiokeen akats edo hutsegiteengatik, egindako lanak kontratatutako zerbitzuarekin bat ez badatoz, Administrazioak baztertu ahal izango du, ordaintzetik salbuetsita egongo da, edo, hala badagokio, eskubidea izango du ordura arte ordaindutakoa berreskuratzen.



## **DEGIKO UDALA**

### **40. klausula.- Bermealdia eta behin betiko bermea itzultzea edo baliogabetzea**

Bermeak iraungo du kontratua amaitu arte eta zerbitzua edo lana jaso edo oniritzia eman arte. Epe horretan, administrazioak aukera izango du emandako zerbitzua edo egindako lana bat ote datorren egiaztatzeko, batetik, horiek egiteko eta betetzeko jarritako preskripzioekin eta, bestetik, plegu honetan eta preskripzio teknikoaren pleguan xedatutakoarekin. Urtebeteko bermealdia igarotakoan, emandako zerbitzuei eta egindako lanei eragozpenik jartzen ez bazaie, kontratugileak ez du erantzukizunik izango aurrerantzean.

Bermealdian hutsak edo akatsak sumatuko balira egindako lan edo zerbitzuetan, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratugileari horiek konpon ditzala eskatzeko.

### **41. klausula.- Kontratua ebaztea**

Kontratua suntsituko da plegu honetan eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginekoko 223. eta 308. artikuluetan adierazitako egoerak gertatzen badira. Kontratazio-organoak berak erabakiko du, ofizioz edo kontratugileak eskatuta.

Kontratua kontratugilearen erruz suntsitzen bada, behin betiko bermea konfiskatuko da, administrazioari eragindako kalteengatik kalte-ordainean eragin gabe, bermearen zenbatekoa baino handiagoa bada.

## **VIII. BALIABIDEAK, BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK ETA KONTRATUA BALIOGABETZEKO KASU BEREZIAK**

### **42. klausula.- Baliabideen erregimena**

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 40. artikulua araberak, honako hauen kontra jar daiteke aukeran kontratazio-arloko errekurso berezia: lizitazio-iragarkiak, pleguak eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-agiriak; esleipen-prozeduran onartutako izapide-egintzak, baldin eta izapide horiek, zuzenean edo zeharka, esleipenari buruzko erabakiak hartzen badituzte, prozedurak aurrera jarraitzea eragozten badute, edo defentsa-gabezia edo eskubide eta interes bidezkoetan kalte konponezina sortzen badute; eta kontratu honetako esleipen-erabakiak. Errekurtso hori administrazioarekiko auzien errekurtsua jarri baino lehen edo ordezkari jarri ahal izango da, jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera.



## **DEBIOKO UDALA**

Kontratu honen ondorioei, betetzeari eta iraungipenari dagokionez, kontratazio-organoak egiten dituen ekintzen aurka dagokion administrazio-errekurtso arrunta jarri ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzien errekurtoa jarri ahal izango da, jurisdikzioa erregulatzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

Kontratu hau interpretatzeko, betetzeari buruzko zalantzak konpontzeko, interes publikoko arrazoiengatik aldatzeko eta ebazpena eta ondorioak adosteko eskumenak baliatuz kontratazio-organoak egiten dituen akordioei aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzien errekurtoa jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa erregulatzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

### **43. klausula.- Behin-behineko neurriak**

Kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri baino lehen, hori ezartzeko eskumena duten pertsonak hori ebatzi behar duen organo eskudunari eskatu ahal izango diote behin-behineko neurriak hartzeko, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren (SPKLTB) 43. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **44. klausula.- Baliogabetasun-erregimena**

Kontratu hau prestatzeko eta esleitzeko ekintzak azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren (SPKLTB) 31.-36. artikuluetan aurreikusitako baliogabetasun orokorraren erregimenaren menpe daude.

### **45. klausula.- Jurisdikzio eskuduna**

Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzio Araubidea da eskuduna kontratu hau prestatzearekin, esleitzearekin, haren ondorioekin, betetzearekin eta iraungitzearekin lotuta sor daitezkeen legezko alderdiak ebazteko.





**DERIOKO UDALAK**

**I. eranskina.- Karatula-eredua**

**[Prozeduraren izenburua]**

Dagokion moduan

**A GUTUN-  
AZALA:**

[Pleguko dagokion klausulan azaldutako dokumentazioa]

**B GUTUN-  
AZALA:**

[Pleguko dagokion klausulan azaldutako dokumentazioa]

**C GUTUN-  
AZALA:**

[Pleguko dagokion klausulan azaldutako dokumentazioa]

**Enpresa lizitzailearen datuak:**

Izen soziala:

IFK:

Jakinarazpenetarako helbidea:

Posta-kodea eta udalerria:

Telefonoa:

Faxa:

Helbide elektronikoa:

**Ordez kariaren datuak:**

Izen-abizenak:

NAN:

Data

Ordez kariaren sinadura:



**DERIOKO UDALAK**





## **DERIOKO UDALA**

### **II. eranskina.- Erantzukizun-adierazpenaren eredia**

#### ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA

PROZEDURA [LIZITATZEN DEN KONTRATUAREN IZENA]

Jaunak/andreak:

NAN zenbakia:

Bere izenean:

Honen ordezkari gisa:

Erakundearen/enpresaren izena:

IFZ/IFK:

Helbidea:

PK:

Udalerria:

Tel.:

Mugikorra:

Helbide elektronikoa:

#### **HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT:**

1. Ordezkatzen dudan enpresak eskumena du Derioko Udalarekin kontratu bat egiteko; izan ere, jarduteko gaitasuna du eta ez dago SPKLTBren 60. artikuluan kontratatzea eragozten duten debekuetako batean ere sartuta.
2. Ordezkatzen dudan enpresak egunean ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
3. Ordezkatzen dudan enpresan, langileen % 2 edo gehiago elbarrituak dira, edo, hala izan ezean, enpresak apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuaren 2. artikuluan zehaztutako neurriren bat hartu du.
4. Ordezkatzen dudan enpresak indarrean dagoen legeriak eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditu ireki, jarri eta funtzionatu ahal izateko.



## **DERIOKO UDALA**

5. Gobernukideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko Goi Karguen interesen arteko gatazkak arautzen dituen apirilaren 10eko 5/2006 Legeak goi-karguen bateraezintasunen inguruan aipatzen dituen pertsonak ez daude enpresa honetako gobernu- eta administrazio-organoetan.
6. Enpresa hau eta enpresa honetako gobernu- eta administrazio-organoetako kideak ez daude tokiko korporazioek kontratatu ahal izateko ezgaitasun eta bateraezintasun kasuren batean sartuta.

Eta, Derioko Udalaren kontratazio-espeditentean jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen dut neure erantzukizunpean:

(Lekua, data eta lizitatzaillearen sinadura)

(Atzerriko lizitatzailleentzat soilik):

Berariaz adierazten dut:

- a) Kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztiak ebazteko, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jarriko naiz.
- b) Dagokidan atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo diot.

(Lekua, data eta lizitatzaillearen sinadura)



## **DEGIKO UDALA**

### **III. eranskina.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko datuak indarrean daudela aitortzeko adierazpenaren eredia**

Jaunak/andreak:

NAN zenbakia:

Bere izenean:

Honen ordezkari gisa:

Erakundearen/enpresaren izena:

IFZ/IFK:

Helbidea:

PK:

Udalerria:

Tel.:

Mugikorra:

Helbide elektronikoa:

SPKLTBren 146.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Lizitatzailen eta Enpresa Saillkatuen Erregistro Ofizialen batean inskribatutako lizitatzailerek ziurtagiria (83. artikulua 2. paragrafoan aurreikusitako agiria) aurkezten badute, orduan, agiri horrez gain, lizitatzaileren erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko da, ziurtagiri horretan jasotako datuak ez direla aldatu adieraziz.

#### **HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT:**

Jarraian zehaztutako agirietan:

- a) Enpresariaren izaera juridikoa eta, hala badagokio, haren ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak.
- b) Enpresaren sailkapena egiaztatzen duten agiriak edo kaudimen ekonomikoari, finantzarioari eta tekniko-profesionalari buruzko baldintzak justifikatzen dituztenak.



## **DERIOKO UDALA**

Ez da aldaketarik egin.

Eta, Derioko Udalaren kontratazio-espeditentean jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen dut neure erantzukizunpean:

, (e)ko ren (e)(a).

(sinadura)



## **DERIOKO UDALA**

### **IV. eranskina.- Konfidentziasun-adierazpenaren eredia**

PROZEDURA [LIZITATZEN DEN KONTRATUAREN IZENA]

Lizitazailearen datuak:

izena:

Helbidea:

NAN/IFZ:

Telefonoa/faxa:

Helbide elektronikoa:

Ordezariaren datuak, beharrezkoa bada.

Izena:

Helbidea:

NAN/IFZ:

Telefonoa/faxa:

Helbide elektronikoa:

Enpresa honek aurkezturiko eskaintzari dagokionez, adierazten dut konfidentziazat jotzen ditugula zenbaki hauek dituzten agiriak:

1. \_\_\_\_\_
2. \_\_\_\_\_
3. \_\_\_\_\_
4. \_\_\_\_\_
5. \_\_\_\_\_
6. \_\_\_\_\_

(Lekua, data eta lizitazailearen sinadura)



**DERIOKO UDALA**

**V. eranskina.- Proposamen ekonomikoaren eredia**

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak  
 (helbidea: \_\_\_\_\_ udalerrria, \_\_\_\_\_ kalea,  
 \_\_\_\_\_ zenbakia; NAN zenbakia: \_\_\_\_\_), adinez nagusia denak,  
 \_\_\_\_\_ enpresaren izenean eta ordezkari gisa,  
 (enpresaren helbidea: \_\_\_\_\_ udalerrria, \_\_\_\_\_  
 kalea, \_\_\_\_\_ zenbakia, \_\_\_\_\_ posta-kodean; IFZ:  
 \_\_\_\_\_), **lorategiak mantentzeko, berritzeko, garbitzeko eta  
 hobetzeko lanen zerbitzua (zelaiak eta belardiak, plantazioak, kanpoko  
 jardinerak eta barruko landareak, eta Derio udalerrian behar duten bideetan  
 sastrakak kentzeko lanak barne)** esleitzeko aukerak izateko eskatzen diren  
 baldintzen berri izan ondoren, hitzematzen du berau zorrozki gauzatuko duela  
 administrazio-klausula berezien pleguan eta baldintza teknikoen pleguan jasotakoaren  
 arabera, urteko \_\_\_\_\_ prezioan, BEZik gabe  
 (prezinoa letretan).

Hauxe da proposamen ekonomikoa osatzen duten zenbatekoen xehakapen orokorra:

Lorategiak, hauek barne: soropilak eta belardiak, plantazioak, kanpoko jardinerak eta barruko landareak, baita Derio udalerrian behar duten bideetan sastrakak kentzeko lanak ere.

	<b>Urtea</b>	<b>Kontratu osoa (2 urte)</b>
Zenbatekoa (BEZik gabe)		
BEZa		
Guztira		





## DERIOKO UDALA

Kontzeptua	Urteko zenbatekoa (€) BEZik gabe
Soldatak	
Askotariko materiala	
Jantziak eta aldagelak	
Material kontsumigarria	
Enpresaren gastu orokorrak	
Askotariko gastuak	
Amortizazioa	
Finantza-kostuak	
Zergak	
Industria-onura	

Eta, jasota gera dadin, honako agiri hau sinatzen dut, \_\_\_\_\_n,  
20\_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_(e)(a)n.

[Sinadura]

[Kargua]



## **DERIOKO UDALA**

### **VI. eranskina.- Behin betiko bermearen eredia**

.....erakundeak (bankua/kutxa)  
(IFZ: .....; helbidea: ..... udalerrria, ..... kalea),  
eta haren izenean eta ordezkari gisa ..... jaunak/andreak,  
botereak dituenak,

#### **ABALATU EGITEN DU:**

Solidarioki Administrazio Publikoen Kontratuen Legedian ezarritako baldintza orokorretan, IFK edo IFZ ..... izanik, Derioko Udalaren aurrean, ..... zenbatekoagatik (zenbakietan eta letretan), behin betiko fidantza gisa .....ko kontratua gauzatzetik eratorritako betebeharrak betetzea bermatzeko, Derioko Udalak ..... datan .....ren eskutik ..... zenbatekoarekin egindako esleipenaren arabera.

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean adierazten du bete egiten dituela Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen araudi orokorrak bere 56.2. artikuluan zehaztutako baldintzak. Berme hori solidarioki ematen da betebeharrak nagusiarri dagokionez, berariaz uko egiten zaio eskusio-onurari eta konpromisoa hartzen da sozietatearen lehen errekerimendua ordaintzeko Diru-bilketari buruzko Araudi Orokorraren 108. artikuluan ezarritako epean.

Berme hau indarrean egongo da Derioko Udalak berau ezeztatzea edo itzultzea baimentzen duen arte, arestian aipatutako Administrazio Publikoen Kontratuen Legedian eta legedia osagarrian ezarritakoaren arabera.

Berme hau ..... datan inskribatu da Bermeen Erregistro Berezian, ..... zenbakiarekin. .

....., 20...(e)ko .....ren ....(e)(a)

(Tokia eta data)

(Erakundearen izen soziala)

(Ahaldunen sinadura)